


A vibrant illustration on a dark purple background featuring four stylized people blowing into party blowers. In the top left, a person with yellow skin and a red headband blows into a white and blue striped blower. In the top right, a person with red skin and a pink cloud-like headpiece blows into a white and blue striped blower. In the bottom left, an older person with dark skin, wearing a red headscarf and yellow-rimmed glasses, blows into a white and blue striped blower. In the bottom right, a person with blue skin and a yellow sweater blows into a white and blue striped blower. Colorful streamers in red, yellow, and blue swirl around the scene.

EUSKARAREN ERABILERA INKLUSIBORAKO JARRAIBIDEAK

araba  álava

**Edizioa**

Arabako Foru Aldundia

Idazketa

June Fernández

Ilustrazioak eta diseinua

Janire Orduna Díaz

Data

2024ko iraila

araba  álava
foru aldundia diputación foral

EUSKARAREN ERABILERA INKLUSIBORAKO JARRAIBIDEAK



Sarrera

Arabako Foru Aldundiak (AFA) ibilbide garrantzitsua egin du hizkuntzaren erabilera ez-sexista aplikatzen, hau da, emakumeak ikusarazten dituen, joera androzentrikoak saihesten dituen, iruditeria estereotipatuak apurtzen dituen, etab. Berdintasun-legeek printzipio hori bete behar bihurtu zuten administrazio publikoentzat, eta, horren ondorioz, gure erakundeak hizkuntza ez-sexista erabiltzeko gida bat egin zuen 2011n, bai eta hura aplikatzeko gomendio praktikoak ere.

Gaztelaniaren kasuan, azken hogeitaz urteotan pil-pilean egon da hizkera ez sexistari buruzko eztabaida. Aldiz, oso hedatua dago euskara berez hizkuntza ez sexista delako aurreiritzia. Auzo-erdaren kontrara, euskararen generoa ez da morfologikoki apenas agertzen eta hitz maskulinoek ez dute orokortzeko gaitasunik (hortaz, ez da zuzena irakasle talde misto bati buruz "maisua" esatea edota familia testuinguruan "aitak" edo "aiti-teak" erabiltzea). Ondorioz, pentsatu izan da hizkera ez sexista bermatzeko ez dugula berariazko esfortzurik egin behar.

Alabaina, berdintasunerako instituzioak eta zenbait hizkuntzalari feministak aspaldian hasi ziren euskararen erabilera ez-sexista bermatzeko gakoak proposatzen. Zehazki, Emakundek 1988an argitaratu zuen

Hizkuntza, hitzak baino zeozer gehiago. Hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako proposamenak gida (Ana Rinconek koordinatu zuena), eta hogeitazortzi urte ondoren Amelia Barkinek idatzitako Euskararen erabilera ez-sexista.

Edonola ere, azken hamarkadetan behar sozial berriak agertu dira, komunikazio inklusiboaren erabileraren kontzeptua zabaltzera garamatzatenak. Horietako bat da ez-binario gisa identifikatzen diren pertsonak ikusgai egiteko oztopoak identifikatzea eta estrategiak eztabaidatzea. Gaztelaniaz todes formula zabaltzen ari den honetan, euskaraz ahaidetasunaren zein hitanoaren binarismoaren aurreko alternatibak esploratzen dihardu LGTBI+ komunitateak. Garrantzitsua da halako saiakerari merezi duten zilegitasuna ematea, nahiz eta epe laburrean bideragarria ez izan administrazio-erregistroetan erabiltzea.

Era berean, garrantzitsua da kontuan hartzea 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak jasotzen duen printzipioa, hots, ikuspegi interseksionala eta askotariko diskriminazio-egoerak integratzekoa. Horrek esan nahi du historikoki diskriminatuta egon diren

kolektiboetako erakundeek edo elkarteek ematen dizkiguten jarraibideak betetzea, komunikazioaren bidez arrazismoarekin, kapazitismoarekin, adinagatiko diskriminazioarekin, sexu-orientazioarengatiko edo genero-identitateagatiko diskriminazioarekin lotutako botere-sistemak ez elikatzeko, sistema horiek elkarren artean erlazionatzen baitira.

Gida eguneratu berri honetan hizkuntzaren erabilerrara mugatuko gara, baina elementu hau herritarrek gure mezuak nola deskodetuko dituzten kontuan hartzeko beste elementu bat baino ez da: zaindu ditzagun halaber protagonismoak, irudiak, ikuspegiak... Prestakuntzan sakontzera animatzen zaitugu, baina hemen bertan aurkituko dituzu hizkuntza ez-sexistaren ohiko jarraibideetatik haratago doazen gomendio batzuk.





1

Euskarazko komunikazioan emakumeen ikusgaitasuna bermatzeko eta formula sexistak saihesteko gakoak **10**

- | | | |
|-----|--|----|
| 1.1 | EMAKUMEAK BERARIAZ AIPATU EDO ISLATUKO DITUGU GENERO-MARKARIK GABEKO TESTUETAN | 12 |
| 1.2 | PERTSONAK IZENDATZEKO ORDUAN, IZEN-ABIZENEKIN AIPATUKO DITUGU | 13 |
| 1.3 | EUSKARAZ ZUZENAK EZ DIREN FORMULA OROKORTZAILEAK EZABATUKO DITUGU | 14 |
| 1.4 | BIKOTE-IZENETAN MASKULINOA LEHENESTEKO JOERAREKIN APURTUKO DUGU | 15 |
| 1.5 | GAZTELANIAREN ERAGINEZ, ADJEKTIBO ETA IZENETAN GENERO FEMENINOA MARKATZEKO JOERA SAIHESTUKO DUGU | 15 |
| 1.6 | JAUZI SEMANTIKO ANDROZENTRIKOAK SAIHESTUKO DITUGU | 16 |

2

Pertsonak modu parekide eta inklusiboan aipatzeko gakoak **18**

AURKIBIDEA

3

Hizkuntzaren erabilera benetan inklusiborako gakoak 22

- 3.1 SEXU-, GENERO- ETA FAMILIA-ANIZTASUNA 26
- 3.2 ARRAZA- ETA KULTURA-ANIZTASUNA 30
- 3.3 ANIZTASUN FUNTZIONALA, INTELEKTUALA ETA PSIKOSOZIALA 33
- 3.4 ADIN-ANIZTASUNA 36

4

Glosarioa 38

5

Sakontzen jarraitzeko bibliografia 46



**Euskarazko
komunikazioan
emakumeen ikusgaitasuna
bermatzeko eta formula
sexistak saihesteko
gakoak**

Euskarazko hizkeran gehien-gehienetan ez da genero gramatikala agertzen. Hala, litekeena da entzulearen interpretazioek zantzu sexistak izatea; adibidez, "zirujau" edo "ministro" esaten dugunean, gizon bat irudikatzea, eta "erizainak" esaten dugunean, emakumeak. Hala, euskaraz ari garenean, erronka nagusia izango da erabakitzea noiz den beharrezkoa genero soziala esplizitatzea. Aitzitik, badira kontuan hartu beharreko jarraibide gehiago. Ikus dezagun:

1.1. EMAKUMEAK BERARIAZ AIPATU EDO ISLATUKO DITUGU GENERO-MARKARIK GABEKO TESTUETAN

Hizkeraren bidez egin dezakegu:	
Eskualdeko futbolariak parte hartu dute omenaldian	Eskualdeko futbolariak, emakumeak zein gizonek, parte hartu dute omenaldian
12 euskal enpresarik jaso dute Emakunderen ziurtagiria	12 euskal enpresarik (5 emakumeak eta 7 gizonek) jaso dute Emakunderen ziurtagiria
Autobus gidari bat erasotu du erabiltzaile batek	Lerroburuan ez, baina informazioa zabaltzerakoan zehaztuko ditugu gidariaren zein erabiltzailearen generoak



Edo irudien bidez:

Esaterako, emakumeak nabarmentzea *crossfit* ikastaro baten publizitateko irudian, edota mutilak eskolaz kanpoko dantza modernoko klaseen iragarkietan.

1.2. PERTSONAK IZENDATZEKO ORDUAN, IZEN-ABIZENEKIN AIPATUKO DITUGU

Pritzker Arkitektura saria jaso dute Pigem eta Vilaltak	Pritzker Arkitektura saria jaso dute Carme Pigem eta Ramón Vilaltak
[Bibliografian] T. Romero (ed.)	[Bibliografian] Tatiana Romero (ed.)



1.3. EUSKARAZ ZUZENAK EZ DIREN
FORMULA OROKORTZAILEAK EZABATUKO
DITUGU

Lege-gizonak	Legegileak
Aitak	Gurasoak
Anaiak	Neba-arrebak
Aitonak/Aititeak	Aiton-amonak/ Aitite-amamak
Errege katolikoak	Errege-erregina katolikoak
Agureen etxea	Adinekoen etxea
Anaitasuna	Senidetasuna
Neandertalgo gizona	Neandertalgo gizakia

Gaztelanian erabiltzen diren formula ez-sexista asko ez dira beharrezkoak izango euskarara itzultzen ditugunean; esate-
rako, *"Derechos de la infancia y la juventud"* "Haurren eta
gazteen eskubideak", eta ez "Haurtzaroaren eta gaztaroaren
eskubideak".



1.4. BIKOTE-IZENETAN MASKULINOA LEHENESTEKO JOERAREKIN APURTUKO DUGU

Begoña Muruagak 1993an proposatu zuen irizpidea baliatuko dugu, hots, silaba gutxien dituen hitza jarri behar da lehenengo: "Neska-mutilak", "neba-arrebak", "errege-erregina". Silaba kopuru bera denean, ordena tartekatzea proposatzen dugu, hau da, beti "aitite-amama" idatzi ordez, "amama-aitite" ere erabiltzea.

1.5. GAZTELANIAREN ERAGINEZ, ADJEKTIBO ETA IZENETAN GENERO FEMENINOA MARKATZEKO JOERA SAIHESTUKO DUGU

* Ana Redondo da Berdintasun ministra berria.

| ✓ Ana Redondo da Berdintasun ministro berria.

* Ana Patricia Botin da Banco Santanderreko presidentea.

| ✓ Ana Patricia Botin da Banco Santanderreko presidentea.

Edonola ere, euskarazko halako neutroak gaztelaniazko maskulinitatik hartuak izan direla kontuan hartuta, aurreikusi beharko dugu **entzulearen sexismoa erraz aktibatu daitekeela**, alegia, "Redondo ministroa" esaten badugu, askok gizona irudikatuko duela. Halakoetan bereziki inportantea izango da emakumeak ikusgai egitea, izan irudien bidez edo izen-abizena jarrita.

Bestetik, hizkera informalean maiz erabiltzen ditugu "tipa/tipo", "guapa/guapo", "majo/maja", "potxola/potxolo" bezalakoak. Kontuan izango dugu **halako moldeek pertsona ez-binarioak kanpo uzten dituztela**.



Azkenik, euskararen erabilera ez sexistari buruzko gidaliburu guztiak agertu dira **-sa atzizkiaren kontra**, bereziki *alkatesa* eta *aktores*a terminoen kontra (horiek erabiltzen baitira gehien).

* *Maider Etxebarria Gasteizko alkatesa.*

| ✓ *Maider Etxebarria Gasteizko alkatea.*

Euskaltzaindiak honako salbuespenak onartu ditu: *printzesa*, *abadesa*, *jainkosa*, *kondesa*. **Pertsonaren generoa zehaztu nahi badugu**, kontuan izango dugu ea modu simetrikotan egiten dugun, alegia, "alkate andrea" formula erabiltzen badugu, "alkate jauna" ere erabiltzea, edo "emakume aktoreak" formula modu mugatu eta kontzientean erabiltzea.


1.6. JAUZI SEMANTIKO ANDROZENTRIKOAK SAIHESTUKO DITUGU

Gaztelaniaz ere ematen den fenomeno da jauzi semantiko: esaldi bat printzipioz neutroa edo orokortzailea den hitz batekin hastea, eta, bat-batean, gizoni soilik erreferentzia egitea. Hona hemen Amelia Barquinen adibide ospetsua: "Gazteen aisialdia errutina hutsa da: telebista ikusi, tragoak hartzera joan, neskekin ligatzen saiatu..."

* *Bertsolariak eta pilotariak plazagizonak dira.*

| ✓ *Bertsolariak eta pilotariak plazandre eta plazagizonak dira.*







**Pertsonak modu parekide
eta inklusiboan aipatzeko
gakoak**

Ahal den neurrian, Jaun/Andrea protokolo-formulak saihestuko ditugu (adibidez, gutunen goiburuetan), binarioak direlako eta agian ez datozelako bat zuzentzen gatzazkion pertsonaren identitatearekin.

Ez ditugu erabiliko "andereño" bezalako hutsune lexikoak (gizonentzat baliokiderik ez dutenak): alegia, "maisuk eta andereñoak" esan ordez, "maisuk eta maistrak" erabiliko dugu. Era berean, "maisulan"-en alternatibak bilatuko ditugu, "maistralan" onartua ez dagoela kontuan hartuta.

* Maisuk eta andereñoak

| ✓ *Maisuk eta maistrak*

Erregistro formal zein informaletan gizonak abizenez eta emakumeak izen-abizenez izendatzeko ematen den inertziaarekin hautsiko dugu (Atxaga vs. Arantxa Urretabizkaia). Irizpidea bateratuko dugu: abizena edonorengana jotzeko erabiltzea beti, errespetuak hala eskatzen duenean, eta izena adiskidetasun- edo konfiantza-harremanetarako soilik erabiltzea.


Hitanoa erabiltzen dugunean, gizonei toka eta emakumeei zuka egiteko joera saihestuko dugu; hau ahozkoan ematen da bereziki.

Kirolean hizkera eta formula berberak erabiliko ditugu gizonetzkoen edo emakumezkoen taldeez ari garenean, asimetriak saihestuz; esaterako, "Alaveseko gizonetz" ari bagara, "Alaveseko emakumeak" erabiliko dugu, eta ez "neskak". Era berean, kirol taldeen generoa zehaztuko dugu beti, izan hizkeraren bidez (emakumezkoen saskibaloia / gizonetzkoen saskibaloia) edota irudien bidez.



Trans pertsona bat aurrean dugula hautemanez gero, kontuan izango dugu haren dokumentu ofizialetan agertzen diren izena eta sexua agian ez direla zuzenak. Horregatik, jardunbide egokia izango da haien izen soziala galdetzea, edo abizenagatik bakarrik izendatzea eta genero-markak saihestea.

Pertsona ez-binarioei buruz ari garenean, genero-markak saihestuko edo tartekatuko ditugu ahaidetasunari lotutako hitzetan: esaterako, “Kai Borja eta Estiren semea/alaba” dela esan beharrean, esaldiari buelta ematea: “Kairen gurasoak Borja eta Esti dira”.







Hizkuntzaren erabilera benetan inklusiborako gakoak



Sarreran aurreratu dugun bezala, genero-berdintasuna ez da hizkuntzaren erabilera inklusiboan sakontzeko kontuan hartu behar dugun ardatz bakarra.

1/2023 legegintzako dekretuak, martxoaren 16koa, **emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen** testu bategina onartzen duenak ezartzen du botere publikoek bermatu behar dutela

“diskriminazio anizkoitza jasaten duten emakumeek nahiz emakume taldeek benetan baliatzen dituztela beren oinarrizko eskubideak; inguruabar horiek honako hauek izan daitezke: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritziak, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-orientazioa, genero-identitatea, genero-adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa-jatorria, gizarte-bazterketako egoera, seropositibotasun-egoera, guraso bakarreko familia, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal, sozial edo administratibo”.

Horrez gain, legeak **ikuspegi interseksionala** txertatzeko deia egiten du, hots, Estatu Batuetako aktibista eta pentsalari feminista beltzek garatutako analisi tresna:

“Kontuan hartu behar da nola erlazionatzen diren sexua eta/edo generoa aipatutako gainerako faktoreekin, nola eragiten dioten elkarri hainbat mailatan, askotan aldi berean, eta nola sortzen diren identitate gainjarriak eta interseksionatuak, bai eta elkarri lotutako eta askotariko botere- eta zapalkuntza-egoera eta -ardatzak ere”.

Hitz gutxitan, hizkeraren erabilera ez-sexistaz gain, bestelako diskriminazio-ardatzetara lotutako zantzuak identifikatu beharko ditugu.



EZAGUTZEN AL DITUZU HURRENGO KONTZEPTUAK?

PERTSONA-TALDEA	DESBERDINTASUN ARDATZA
LGTBI+ pertsonak	Zis-heterosexismoa / LGTBIfobia
Lesbianak	Lesbofobia
Gayak	Homofobia
Bisexualak	Bifobia
Transak	Transfobia
Intersexualak	Intersexfobia / Intersexofobia
Asexual eta arromantikoak	Acefobia
Arrazializatuak	Arrazakeria
Etorkinak	Xenofobia
Ijitoak	Antigitanismoa
Musulmanak	Islamofobia
Desgaituak	Kapazitismoa
Psikiatrizatuak	Kuerdismoa eta zorofobia
Lodiak	Lodifobia
Adinekoak	Adinkeria
Haurrak	Heldukeria



Jarraian, gako batzuk emango ditugu ardatz bakoitzeko. Gizarte-erakundeek argitaratutako hizkuntza-giden bila sakontzea gomendatzen dugu; zerrenda erantsi dugu gida honen amaieran.

Kontuan izan behar dugu oso **erabilera dinamikoak direla, gizarte-mugimenduetan sortzen ari diren eztabaidei lotuta baitaude**. Ikusiko dugu, halaber, beti ez dagoela adostasunik terminorik egokienei buruz. Edonola ere, atal honen helburu nagusia da begirada zabaltzeko gonbitea; betaurreko moreak (genero-ikuspegikoak) graduatzen joan gaitezen.

3.1. SEXU-, GENERO- ETA FAMILIA-ANIZTASUNA:

Identitate bakoitzak bere errealitate zehatza du. Termino espezifikoak edo benetan aterki gisa funtzionatzen dituztenak erabiliko ditugu:

* *Gay kolektiboa*

| ✓ *LGTBI+ kolektiboa*

* *Homofobiaren aurkako eguna*

| ✓ *LGTBIfobiaren aurkako eguna*

Trans pertsonak edo **trans komunitatea** terminoak erabiliko ditugu, transexualak, transgeneroak eta trabestiak barne hartzen dituelako (glosarioa kontsultatu).

Zis terminoa erabiliko dugu jaio zirenean esleitu zieten generoarekin eroso dauden pertsonak izendatzeko. Adibidez:

| ✓ *German Urteaga fitness entrenatzaile pertsonala da, trans pertsonetara bideratuta, nahiz eta zis pertsonak ere artatzen dituen.*



Trans ez da substantibo, adjektibo baizik:

* *Transexual baten aurkako erasoa salatu dute.*

| ✓ *Emakume transexual baten aurkako erasoa salatu dute.*

Trans pertsonai buruz ari garenean, kutsu negatiboa edo hutsala duten adierazpenak saihestuko ditugu. Aldiz, aniztasuna aitortzen duten narratiba positiboak bultzatuko ditugu.

* *Okerreko gorputzean jaio zen.*

* *Emakume gorputz batean harrapatuta hazi zen.*

| ✓ *Badaude zakila duten neskak eta bulba duten mutilak*

* *Sexu-aldaketa*

| ✓ *Genero-trantsizioa* (prozesu osoari dagokionean; hala nola izena eta sexua erregistroan zuzentzea)

| ✓ *Kirurgia genitala* (interbentzio jakin horri buruz ari garenean)

| ✓ *Sexua edo generoa berresteko tratamenduak* (esku-hartzeak modu zabalagoan biltzeko, hala nola terapia hormonalak)

Hizkera informalean, pertsona ez-binarioak barnebiltzeko formulak erabiliko ditugu:

* *Goazen, neska-mutilak!*

| ✓ *Goazen, kuadrilla!*



Positiboa da trans eta intersex pertsonak kontuan hartzen dituzten adierazpenak erabiltzea. Adibidez, hilekorako produktu ekologikoei buruzko tailer bat antolatzen badugu, hilekodun pertsonen zuzenduko diegu, kontuan izanda emakume guztiek ez dutela hilekoa, eta egon badaudela hilekoa duten gizonak (transak) eta pertsona ez-binarioak.

Ez dugu ziurtzat joko pertsona guztiak heterosexualak direla. Adibidez, gazteak eta pornoari buruzko kanpaina bat egiten badugu, bi aukera ditugu:

1. LGBTBI+ nerabezaroaren errealitatea aintzat hartzea pornoaren kontsumoari dagokionez.
2. Nerabe heterosexualen edo porno heterosexualari buruzko kanpaina dela zehaztea.

Bisexualitatea existitzen da; emakumeak, gizonak zein pertsona ez-binarioak bisexualak izan daitezke. Aukera hori ukatzen duten lagunarteko adierazpenak saihestuko ditugu, hala nola "lesbiana egin da" (harreman heterosexualak izan dituen emakume batek beste emakume batekin harremana hasi duela zabaltzen denean).

Ez dugu ziurtzat joko bikote eta familia guztiak heterosexualak eta bikote bat buru dutenak direnik:

** Zure haurra erregistratzeko, zure hiriko Erregistro Zibilera joan eta dagokion inprimakia bete beharko duzu. Horretarako, zure NANaren fotokopia eta familia-liburua edo NANA aurkeztu beharko dituzu, bai eta aitaren sinadura ere, ezkontuta ez bazaudete.*

✓ Zure haurra erregistratzeko, zure hiriko Erregistro Zibilera joan beharko duzu, eta dagokion inprimakia bete. Horretarako, zure NANaren fotokopia eta familia-liburua edo NANA aurkeztu beharko dituzu, bai eta beste gurasoaren sinadura ere (egote-kotan, eta ezkontuta ez bazaudete).



☞ Horrelako baieztapenetan, ez da nahikoa hizkuntza-ren erabilera inklusiboa egitea; aitzitik, **egiaztatu behar-ko dugu administrazio-prozedura** bera dela familia homoparentalak edo lesboparentalak direnean.

- Familientzako formularioetan, **termino neutroak** lehenetsiko ditugu, hala nola "tutorea" edo "gurasa", "aita" eta "ama" aukera itxien ordeez. **Sexua edo generoa markatu behar bada**, "Ez-binario" aukera sartuko dugu, guraso edo tutoreentzat, zein haur edo nerabeentzat.

SEXUA EDO GENEROA?



Eztabaida terminologikoa dago pentsamendua-ren korrante desberdinen artean:

- Feminismoak sexua ezaugarri biologikotzat hartu du, eta generoa, berriz, eraikuntza patriarkaltzat.
- Genero-ikasketen eremuan, queer teoriak defendatzen du generoa ez ezik, sexua ere eraikuntza soziala dela.
- Aldiz, sexologian sexu-identitateaz hitz egiten da, ez genero-identitateaz. Sexualitatea alderdi biologikoak eta identitarioak barne hartzen dituen prozesu biografiko gisa ulertzen du sexologiak.



Hortaz, nola jokatu? Pentsa dezagun formulario batean. Administrazio-hizkera korrante horietako batean kokatzea saihesteko, bi irtenbide proposatzen ditugu:

- **Bi kontzeptuak erabili:** Sexua/Generoa
- **Erantzunak jarri zuzenean:** Emakumea/Gizona/
Ez-binarioa

3.2. ARRAZA- ETA KULTURA-ANIZTASUNA

Arraza ez da errealitate biologiko bat, baizik eta pertsona jakin batzuen mendekotasuna eta esplotazioa legitimatzeko asmatutako eraikuntza soziala. Horregatik, egokiagoa da "pertsona beltzez" hitz egitea, "arraza beltzeko pertsonez" baino.

Etnia kategoria antropologikoa da; modu kontziente eta zehatzean erabili behar da. Esaterako, ez dago magrebtar etniarik: Magreb eskualde bat da, eta bertan etnia desberdinak bizi dira. Gainera, konnotazio exotizatzailea du *etnia* terminoak. Horregatik, hobe da ijito-komunitateaz, ijito-kulturaz edo ijito herriaz hitz egitea ijito-etniaz hitz egitea baino.

Zehaztasunez erabiliko ditugu **arrazakeria, xenofobia** eta **antigitanismoa**.

Hizkera arruntean adierazpen arrazista normalizatuak saihestuko ditugu: esaterako, "Ze ijito zaren!" (tranpati, iruzurti edo bihurri deitzeko), "Ijito usaina", "ijitotegia" (hankaz gora dagoen lekua izendatzeko) eta abar. "Pertsona mestizoak" erabiliko ditugu, "mulatoak" baino, bigarren hau gutxiesgarria delako; mando animaliatik eratorritakoa da.



Gutxiengo kultural eta erlijiosoei buruzko terminoen erabilera kontziente eta zorrotza egingo dugu. Adibidez, arabiarra talde etnolinguistiko bati dagokio, eta musulmana izatea erlijio bati, herrialde arabiarretatik kanpo ere errotua dagoe-na. Islamiar zapiak ari bagara, ez ditugu nahastuko hijaba, burka edo niqaba.

Ijitoak estigmatizatzen dituzten eta beren kulturen berezkoak ez diren terminoak saihestuko ditugu, hala nola *klana* edo *patriarka*.

Etorkina, migratzailea edo migratua adjektibo gisa erabiliko dugu, eta ez substantibo gisa, arrazismoak eta xenofobiak sustatzen duten deshumanizazioa saihesteko. Alegia, "pertsona etorkinak" egokia da; ez da euskaraz beharrezkoa ez den perifrasi bat.

Euskadin jaiotako pertsona arrazializatuak ez dira etorkinak. Batzuk etorkinen seme-alabak izango dira, baina ezin dugu hori ziurtat jo itxura fisikoagatik. Ikusaraz dezagun euskal herritar guztiak ez garela zuriak.

Migrazioetarako Nazioarteko Erakundearen (MNE) glosarioaren arabera, ez dugu "etorkin ilegalak" esapidea erabiliko, "delitu-konnotazioa duelako, migratzaileen duintasunaren aurka egiten duelako eta haien giza eskubideen errespetua kaltetzen duelako". "Administrazio-egoera irregularrean dauden pertsona migratuak" edo "agiritik gabeko pertsonak" erabiliko ditugu alternatiba gisa.

Errefuxiatuak aipatuko ditugu, hots, beren ohiko bizilekutik ihes egin behar izan dutenak, gatazka armatuengatik, genero-indarkeriagatik edo bestelako giza eskubideen urraketengatik, asilo estatusa lortu ala ez. Pertsona migratuak eta errefuxiatuak.



"Atzerritarrak" terminoari dagokionez, testuinguru juridikoetan erabiliko dugu soilik, Espainiako nazionalitatea ez dutenak aipatzeko. Gainerako kasuetan, "migratuak" erabiliko dugu; izan ere, MNEaren arabera, "atzerritar"-ek "konnotazio negatiboa du, distantzia artifiziale ezartzen duelako eta alteritate-zentzua sortzen duelako". Pertsona migratuak eta errefuxiatuak.

Ez ditugu erabiliko immigrazioa estigmatizatzen, deshumanizatzen edo kriminalizatzen duten termino eta adierazpenak, hala nola "oldea", "pisu patera" (gainokupatutako pisuez hitz egingo dugu) edo "menak". Azken horri dagokionez, garrantzitsua da bakarrik dauden adingabe etorkinak haur gisa aitortzea.



3.3. ANIZTASUN FUNTZIONALA, INTELEKTUALA ETA PSIKOSOZIALA

Ez ditugu *elbarritasun* eta *baliaezintasun* terminoak erabili, “baliaezintasun-pentsioa” terminologia hori erabiltzen duten prestazioei eta egiaztapenei dagokienez izan ezik.

Eremu instituzionalagoetan, “degaitasuna duten pertsonak” esamoldea gomendatzen da. Aldiz, aktibismoan badaude bestelako terminoak nahiago dituzten eragileak:

EZTABAIDA IREKIA



2021ean, RAEk proposatu zuen Espainiako Konstituzioan “urritutako pertsonak” ordezkatzea eta “ezinduk” jartzea.

Gomendio hori kritikatu zuen Degaitasuna duten Pertsonen Ordezkarien Espainiako Batzordeak (Cermi), eta gogorarazi zuen “degaitasuna duten pertsonak” dela estatuko eta nazioarteko araudiek baliozko eta homologatutako termino bakarra: Nazio Batuek babesten dute, eta administrazio publikoek erabili behar dute, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko 39/2006 Legearen arabera. Bien arteko ñabardura da degaitasuna pertsona horien bizitzako eta identitateko beste elementu bat dela ulertzea, eta ez definitzen dituen.

Era berean, azken hamarkadan "dibertsitate funtzionalaren" erabilera zabaldu da, alternatiba positibo gisa:

gaitasun baten falta adierazi beharrean (adibidez, oinez mugitzea), balioa ematen dio funtzio bera egiteko gorputzek edo adimenek funtzionatzen duten formen aniztasunari (adibidez, gurpil-aulkian mugitzea). Arrazoi berberengatik, "neurodibergentziaren" erabilera ere zabaltzen ari da.

Azkenik, "pertsona ezinduez" hitz egitea defendatzen duen korrante berri bat dago,

pertsona horiek kapazitismoak zapaltzen dituela transmititzeko, "pertsona arrazializatuen" erabileraren ildo berean.

Arabian, AFAko Gizarte Politiketako Sailak eta Eginaren Eginenez elkarteak bi terminoak erabiltzen dituzte: "degaitasuna duten pertsonak" eta "dibertsitate funtzionala duten pertsonak".

AFAko Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzuak bi aukerak baliozkotzen ditu, baina "dibertsitate funtzionala" lehenesten du, bere jarduera-eremuak bi – sentsibilizazioa eta ahalduentze-prozesuak – hobeto egokitzen baitira termino horretara.



Zehaztasunez erabiliko ditugu dibertsitate mota desberdinei dagozkien terminoak: fisikoa, intelektuala, mentala, sensoriala, bisuala, entzumenekoa, psikosoziala eta abar.

“Adimen-ezintasuna” terminoa (eskizofrenia edo nahasmendu bipolarra duten pertsonak aipatzeko, besteak beste) **“desgaitasun psikosoziala” terminoarekin ordezkatu da,** Nazio Batuen Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentziotik abiatuta.

Pertsona gorrei buruz hitz egingo dugu, eta ez gormutuez. Hitz gutxiesgarria eta okerra da; ez da mututasunarekin nahastu behar gorrieriak hizkeran duen eragina.

Zeinu-hizkuntzaz hitz egingo dugu, ez zeinu-lengoaiaz. Aktibismo gorrak Zeinu Hizkuntza eta Pertsona Gorrak letra larriz idazten ditu; arau gramatikalekin bat ez badatoz ere, errespetatu egingo ditugu erabilera horiek aktibismotik datozenean.

“Pertsona itsuak” (ezer ikusten ez dutenak) eta “ikusmen-desgaitasuna duten pertsonak” erabiliko ditugu, ONCEk agindu bezala.

Lagunarteko hizkeran, ez ditugu irain gisa erabiliko desgaitasun intelektuala duten pertsonak definitzeko sortutako hitzak, hala nola “atzeratua.

Ez dugu modu arinean erabiliko sufrimendu psikiatrikoa hutsaltzen duen esamolderik: adibidez, lagunartean esatea pertsona bat bipolarra edo zoratuta dagoela, edo egoera bat eskizofrenikoa edo eldarniozkoa dela.



Lagunarteko hizkeran oso normalizatuta dauden esamoldeen jatorri kuerdistaz jabetuko gara, hala nola "burutik eginda dago".

Irakurketa Errazaren erabilera sustatuko dugu, dokumentuak irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat irisgarriak izan daitezen.

3.4. ADIN-ANIZTASUNA

Helduekin erabiltzen ez ditugun adierazpen paternalistak edo posesiboak saihestuko ditugu, hala nola "gure haurrak" edo "gure zaharrak". Ez dugu "adingabe"-z hutsean hitz egingo, gutxiespen-ñabardura bat duelako, beheko edo mendeko pertsona gisa. Modu kontzientean aukeratuko dugu "adingabeak", "haurrak" edo "haurtzaroa eta nerabezaroa" terminoen artean.

"Zaharra" ez da erdeinuzkoa, egokia da erabiltzea. Bai ordea "agure" eta "atsoa" (zenbait feministek "atsoa" aldarrikatzearen alde egin badute ere). Gainera, gogora dezagun "agure" ezin dela modu orokortzailean erabili, esaterako "agureen egoitzak" ez da zuzena.

Erregistro informaletan, ez ditugu aitona edo amona gisa aipatuko adinekoak izateagatik; pertsona zahar guztiek ez dituzte bilobak. Ez ditugu erabiliko beste esamolde paternalista edo errespetugabekoak, hala nola "karka".










4

Glosario



Androzentrismoa

Patriarkatutik eratorritako errealtatearen ikuspegia da. Gizonak erreferentziazko subjektutzat eta emakumeak haien menpekotzat hartzean datza.

Antigitanismoa

Ijitoenganako arrazakeria modu espezifikoa, arraza-nagusitasunean, gizatasuna galtzean eta diskriminazio historikoak elikatutako arrazismo instituzionalean oinarritzen dena, besteak beste. Indarkeriak, gorrotoaren diskurtsoak, esplotazioak eta diskriminazioak adierazten ditu.

Arrazakeria

Pertsona zurien arraza-nagusitasuna sustatzen duen ideia-multzoa, teoria, doktrina, edo ideologia. Pertsona arrazializatuari ezaugarri intelektual, kultural eta izaera negatiboak ezartzen dizkie.

Arrazializatuak

Arraza-kategoria diskriminatu batean sailkatua den pertsona, besteak beste, larru-kolorearen, azentuaren edo jatorriaren arabera. Ez da pertsonaren berezko ezaugarria, testuinguruaren arabera nola hautematen den baizik: adibidez, Senegaldik migratutako pertsona beltz bat ez zen arrazializatua bere jatorrizko herrialdean, baizik eta begirada zuriak arrazalizatzen du. Era berean, Guatemalako jatorria duen arabar bat arrazializatua da Araban, baina ez Guatemalan, non mestizoak talde nagusia diren; testuinguru horretan, pertsona arrazializatuak indigenak eta beltzak dira, besteak beste.



Asexualitatea eta arromantizismoa

Beste pertsonetako erakarpen erotikoa eta/edo erromantikoa sentitzen ez duen pertsona baten sexu-orientazioa. Ez du esan nahi, nahitaez, libidoa ez izatea, sexua ez praktikatzeko, kitzikapenik ez sentitzea edo bikote-harremanik ez izatea. Asex espektroan sartzen dira, besteak beste, pertsona demisexualak: sexu-erakarpena izateko lotura emozional handia behar dutenak. Pertsona asexual batzuek heterosexualtza, bisexualtza edo homossexualtza hartzen dute beren burua (adibidez, desio sexuala ez baina erakarpen erromantikoa sentitzen badute).

Binarismoa

Pertsonen portaerak, emozioak eta anatomia bi generotan modu dikotomikoan sailkatzen dituen gizarte-erakuntza: maskulinoa eta femeninoa. Gizartearen ikuskera, praktikak eta antolaketa hierarkikoko sistema. Hurrengo ideia du abiapuntu: bi genero baino ez daude gizartean, femeninoa eta maskulinoa, jaiotzean pertsonari esleitutakoak. Eskema horrekin apurtzen duten genero-identitate, -adierazpen eta -esperientziaren aurkako diskriminazioa, bazterketa eta indarkeriaren oinarria da.

Ez-binarioa

Genero maskulino edo femeninoarekin identifikatuta sentitzen ez den eta bere identitatea logika horretatik kanpo eraikitzen duen pertsona. Termino zabala horren barruan, pertsonak ezein generorekin identifikatu daitezke (agenero), ezarritako bi/hirurekin (bigenero/trigenero) edo generoa mutatu eta eraldatzen den identitate gisa bizi dezakete (genero jariatzailea). Berriak Estilo Liburuaren arabera "ez-binario" da formula egokia ("ez-bitar" baino).



Genero-adierazpena

Pertsona baten kanpo-elementuak (hala nola janzkera, gorputz-hizkuntza, ahots-tonua eta abar) genero jakin bati esleitutako gizarte-espektatibetan sartzen diren adierazten du. Hala, genero-adierazpen femeninoa, maskulinoa, androginoa edo jaria korra duten pertsonak egongo lirake. Ez du zertan finkoa izan, eta ez du bat etorri behar pertsonaren sexuarekin, genero-identitatearekin edo sexu-orientazioarekin. Adibidez, emakume bat maskulinoa izateak ez du esan nahi nahitaez lesbiana denik; edo gizon trans batek luma femeninoa izan dezake.

Genero-identitatea

Genero jakin bateko kide izatearen sentimendua (emakumea/gizona/ez-binarioa). Ez du zertan bat etorri pertsonaren sexu biologikoarekin, eta ez du zerikusirik sexu-orientazioarekin.

Heterosexismoa/Heteronormatibitatea

Heterosexualitatea sexu-orientazio normal, desiragarri eta onargarri bakartzat duen ideologia. Hortaz, eredu horrekin bat egiten ez duten pertsonen zapalkuntza da bere aplikazioa.

Intersexualak

Gizonen eta emakumeen gorputzen ideia estandar eta binarioekin bat ez datozen ezaugarri sexualak (genitalak, gonadak, hormonak...) dituzten pertsonak.

Irakurketa Erraza

Irakurketa-materialak, ikus-entzunezkoak eta multimediak eskaintzeko modu bat da, irakurtzeko eta/edo ulertzeko zailtasunak dituzten pertsonak irakur eta uler ditzaten.



Kapazitismoa

Gaitasuna (hau da, giza normaltasunaren paradigmaztat hartzen den funtzionaltasuna) pertsonaren balioaren eta onarpen sozialaren faktore erabakigarri gisa ezartzen duen prozesu mentala eta gizarte-egitura. Beraz, desgaitasuna duten pertsonen diskriminazioa, ikusezintasuna, estigmatizazioa edo estereotipazioa sostengatzen duen sistema da.

LGTBI+

Lesbiana, gay, trans, bisexual eta intersexualen siglak. + ikurrak beste sexu- eta genero-disidentzia batzuei egiten die erreferentzia, hala nola pertsona asexualei, genero jariakorrekoiei, queer gisa definitzen direnei, etab.

Okergenerizatzea

Ingeleseko mailegua da (gaztelaniaz malgenerizar gisa itzuli da). Norbaiti hitz egiteko edo hari erreferentzia egiteko bere genero-identitatearekin bat ez datorren genero gramatikala erabiltzean datza, nahita edo ustekebez. Garrantzitsua da pertsona transei eta ez-binarioei galdetzea nola izendatu nahi dituzten beren genero-identitatea aitortzeko eta errespetatzeko.

Guraso bakarrekoak

Guraso batek eta haren ondorengoek osatutako familiak. Familia horietako gehienetan emakumeak dira buru.

Queer

LGTBI+ pertsonen aurka erabiltzen den ingelesezko terminoa eta, hain zuzen ere horregatik, mugimenduaren zati batek harrotasunez erabiltzen duena. Era berean, pentsamendu-korronte bat da, identitate finko edo estatikoetatik ihes egiten duena, generoa eta sexua eraikuntza sozial gisa ulertuz. Judith Butler edo Paul B. Preciado dira erreferentziatzeko pentsalari kuir ezagunenak. LGTBI sigletan Q gehitu duenik badago ere, AFAk LGTBI+ siglaren barruan ulertzea erabaki du.



Sexu-identitatea

Pertsona sexu batekin edo bestearekin identifikatzea. Berdintasun-politiketan sexua gizaki bat gizon edo emakume gisa definitzen duten ezaugarri biologiko gisa ulertu izan da. Sexologiak, aldiz, defendatzen du "sexuazio-prozesuan" ez duela biologiak bakarrik eragiten, baita pertsonaren autopertzepzioak ere, ingurunearekin eta gizarte-testuinguruarekin elkarriketetan. "Transexual" eta "transgenero" artean ñabardurak dauden bezala (ikus aurrerago), "sexu-identitate" eta "genero-identitate" artean ere ezberdintasunak daude. Horregatik, biak aipatzea proposatzen dugu.

Sexu-orientazioa

Pertsona batek beste pertsona batekiko edo batzuekiko erakarpen erromantikoa eta/edo sexuala sentitzeko duen joera. Funtsean, heterosexualak, homosexualak, bisexualak eta asexualak dira.

Trans/transexual/transgenero

Beren genitalen arabera jaiotzean egin zitzairen gizon edo emakume kategorizazioa arbuaitzen duten pertsonak. Otsailaren 15eko 4/2024 Legearen arabera (transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa), hiru adjektibo horiek sinonimotzat erabil daitezke, edo ñabardura desberdinak izan ditzakete. "Transexuala" eremu medikoan sortu zen, baina diagnostiko psikiatriko gisa erabiltzeari uztea lortu da. "Transgenero" konnotazio biomediko horretatik eta binarismotik aldentzeko sortu zen, eta ez-binarismoa kontuan hartzen du. Ildo horretatik, "trans" terminoa aterki are zabalagoa da, beste genero-identitate disidente batzuk barne hartzen dituen, hala nola trabestiak.



Trabestia

Genero jakin batekin lotzen diren jantziak eta adierazpenak gorpuzten dituen pertsona, aldi baterako ekintza performatiko gisa, dela ikuskizunetan (drag queen, drag king, transformistak...), dela eguneroko praktika pribatu gisa. Ez da nahastu behar transexuala edo transgeneroa izatearekin; izan ere, trabestitzeak ez du esan nahi pertsona jaiotzean esleitu zitzaion sexu/generoarekin ados ez dagoenik. Hala ere, badira "trabesti" iraina aldarrikatzea erabaki duten pertsona trans eta ez-binarioak ere, "maritxu", "bollera" edo "biziotsu"-ren ildotik.

Xenofobia

Pertsonak atzerritartzat edo komunitatetik, gizartetik edo nazio-nortasunetik kanpokotzat hartzen direlako arbuizatzea eta baztertzea dakarten jarreraren, aurreiritzien eta portaeren multzoa.

Zis/zisexual/zisgenero

Jaiotzean bere ezaugarri biologikoen arabera egotzi zitzaion sexu/generoarekin identifikatzen den pertsona.

Zisexismoa edo zisnormatibitatea

Pertsona guztiak zisgeneroak direlako edo baldintza hori normala edo onargarria den bakarra delako espektatiba, sinեսmena edo estereotipoa.



Sakontzen jarraitzeko bibliografia:

EUSKARAREN ERABILERA EZ-SEXISTA:

- *Generoa eta euskararen erabilera egokia (2020).* Vitoria-Gasteizko Udala
- *Euskararen erabilera inklusiboa (2018).* Pikara Magazine-UPV/EHU
- *Euskararen erabilera ez sexista (2008).* Amelia Barquin-Emakunde
- *Hizkuntzaren erabilera ez sexistarako jarraibideak (ezezaguna).* Gipuzkoako Foru Aldundia

SEXU- ETA GENERO-ANIZTASUNA:

- *Desirak plazara. Gasteizko LGTBI herritarren errealitateei buruzko diagnostikoa (2018).* Vitoria-Gasteizko Udala
- *Guía de buenas prácticas para el tratamiento de la diversidad sexual y de género en los medios de comunicación (2017).* FSC-CCOO eta FELGTB
- *Glosario de términos sobre diversidad afectivo sexual (2018).* Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa
- *Haur eta gazteen transexualitatea ulertzeko terminologia eta oinarriko glosarioa (datarik ez).* Naizen

ARRAZAKERIA, XENOFOBIA ETA ANTIGITANISMOA:

- *Glosario de la OIM sobre Migración (2019).* Organización Internacional para las Migraciones
- *Guía de lenguaje inclusivo Inmigración, racismo y xenofobia (2013).* Mesa per a la diversitat en l' Audiovisual
- *Recomendaciones para el tratamiento de la comunidad gitana en los medios de comunicación (2016).* Instituto de la Mujer y Kamira

DESGAITASUNA / ANIZTASUN FUNTZIONALA:

- *Oztoporik gabeko komunikaziorako gidaliburua (2009).* LAB
- *Guía para un uso no sexista del lenguaje. Incluye una mirada especial al empleo y a la discapacidad (2018).* Fundación ONCE